

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak energia berriztagarrien instalazioetarako diru-laguntzen deialdia argitaratu du

Eskaerak aurkezteko epea irailaren 21ean amaituko da

Jueves, 21 de junio de 2012

Nafarroako Gobernuak ostiral honetan, ekainak 22, [2012rako energia berriztagarrien instalazioetarako diru-laguntzen](#) deialdia zabalduko du. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 21ean amaituko da.

Helburu horretarako, Nafarroako Gobernuak 1,2 milioi euro jarriko du ekitaldi honetan partikularren eta enpresen ekimenetarako, eta 112.500 euro toki-erakundeek sustatutako instalazioetarako.

Diru-laguntzak emango dira, eguzki-energian (termikoa eta fotoboltaikoa), energia eolikoan, biomasan eta geotermian instalazio berriak laguntzeko eta zaharrak berritzeko; onuradunak, berriz, izango dira, energia-enpresak ez diren eta [azaroaren 9ko 11/2007 Foru Legearen, diru-laguntzei](#) buruzkoaren, 13. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten instalazioetako titularrak.

Diru-laguntzaren zenbatekoa izango da, 1.500 euro baino gehiagoko energia-ekoizpeneko helburuak lortzeko behar-beharrezkoak diren elementuetan egindako inbertsioaren % 10 eta % 40 artean, nahiz eta araudiak onartzen duen 1.000 euroko muga 20 metro koadro baino gutxiagoko eguzki-energia termikoko instalazioetarako. Deialdiak barnean hartzen ditu ere, ikastetxeetan eta toki-erakundeetan helburu didaktikoak dituzten instalazioetarako laguntzak

Diru-laguntzen deialdi hau erregulatzen duen [araua](#) ekainaren 21eko Nafarroako 119. Aldizkari Ofizialean argitaratu da.



Eguzki-panelak.